

EKARPENEI BURUZKO AZALPENAK

Maiatzak 10 eta ekainak 1 bitartean Plazan jasotako ekarpenak

Erreferendumaren aldeko herri ekimenaren proposamenari bazkideek Plazaren bidez egindako ekarpenak benetan interesgarriak izan dira. Zenbait ideia aintzat hartzen ziren, baina ekarpenak irakurrita, egokiago azaldu ahal izan ditugu; beste zenbait ez ditugu bere horretan txostenean txertatu, baina zalantzak identifikatu, eta gai horiei buruz azalpen bat emateko aukera eman digute.

- a. “Estatuek burujabetzari uko egin eta finantza botereen esku utzi dituzte estatuen jardun eta xedeak...” Herritarron burujabetzaren aldeko posizioa hobeto azaldu dugu.
- b. Erabakitzeko eskubidea estatus politikotik harago, zentzu zabalago batean lantzen ari garela adierazi dugu, bizitza erdigunean jarriz.
- c. Kataluniako testuingurua oso aproposa ez dela jaso dugu. Gure Eskuren irakurketa da egoera oso konplexua eta gogorra bada ere, katalanek hainbat lorpen egin dituztela *Procés*-ean, eta txostenean sakonago azaldu ditugu.
- d. **“Erabakitzeko eskubidea baino autodeterminazio eskubidea izan beharko luke Gure Eskuren aldarria, herri kontzeptua garatuz. Gainera, autodeterminazio eskubidea juridikoki garatuta dagoen eskubide bat da”.**

Gure Esku euskal herritarron erabakitzeko eskubidea gauzatzeko jaiotzen da. Erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugunean, bi oinarritzko ideia biltzen ditugu:

- Herri aitortzea, autodeterminazioaren ideiarekin bat egiten duena. XXI. mendean, herritarron erabakian oinarritzen da.
- Erabakitzeko gaitasuna. Errotiko printzipio demokratikoarekin bat egiten du, hau da, edozeri buruz erabakitzeko gaitasuna izan nahi dugu, baita estatus politikoaz ere.

Katalunia eta Euskal Herriaren testuingurua ez da berbera. Kataluniak erabakitzeko gaitasuna aldarrikatu du azken urteotan, eta hori eskuratzeko bide demokratiko eta baketsuak erabili ditu, erabakitzeko gaitasuna askotan eskatuz eta aldarrikatuz (adibidez: Plataforma pel Dret a Decidir), estatu espainiarrarekin konfrontazio demokratiko batera iristeraino. Lehen fase hori agortutzat jo, eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeari ekin diote, herri aitortzearen aldarriari zentraltasuna emanaz.

Euskal Herriko testuingurua bestelakoa da, eta zentzu horretan, Gure Eskuk erabakitzeko eskubidearen aldarriaren inguruan gehiengo sozialak eraikitzen dihardu, edozeren inguruan erabakitzeko gaitasuna eta tresnak -erreferendumak- aldarrikatuz. Estatuak Kataluniari erabakitzeko tresnak eta gaitasuna nabarmenki eta behin eta berriz ukatu dizkio, eta



Kataluniako eragile sozial eta politikoez ulertu dute herri aitortzenaren aldarriak zentraltasuna hartzeko momentua zela. Orain, autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen dute, kanpora begira, hau da, herri aitortzenaren aldarria. Gurean, ordea, Gure Eskuren iritziz, erabakitzeko eskubidea da dagokigun fasearen eta testuinguruaren aldarria. Bestalde legalitateari dagokionez, eskubideen zilegitasuna ez da legezotasunean oinarritzen, baizik eta XXI. mendeko balio demokratikoekin bat egitean. Zentzu horretan, erabakitzeko eskubidea printzipio juridiko sendoak -printzipio demokratikoa, berdintasun printzipioa, autonomia printzipioa, parte hartze printzipioa- dituen printzipio politikoa litzateke, juridikoki garapen bidean dena. Gogoratu, egungo oinarritzko eskubide eta askatasunak horiek gauzatzen lortu direla, batik bat, greba eskubidea greba eginez eskuratu da, gerora horiek instituzionalizatu badira ere, bermatzeko asmoz; zentzu berean, erabakitzeko eskubidea erabakia gauzatuz irabazten da.

e. “Gure helburua Hego Euskal Herrian erreferendum bat egitea izan beharko litzateke”.

Hego Euskal Herrian erreferendum bakarra egiteari dagokionez, egun ez dago Hego Euskal Herri osoa ordezkatzen duen instituzio demokratikorik. Beraz, Hegoaldean ariketa demokratiko horiek planteatzekotan, Nafarroan eta EAEn bana egin beharko genituzke.

f. “Herri ekimen legegile bat abiaraztea”.

Herri Ekimen Legegilea eta Eskaera Eskubidearen artean bigarrenaren aldeko hautua egin dugu. Izan ere, Herri Ekimen Legegilea aurkezteko prozedura oso zurruna da, eta hainbat faktoreren menpe egon daiteke. Eskaera eskubidea, ostera, malguagoa da formatan eta erakundeak eskaerari erantzun bat ematera behartuta daude. Malguagoa izanik ere, gardentasun eta berme mekanismo batzuk jarriko genituzke sinadura bilketaren gaineko kontrola emango lukeen Berme Batzorde bat izendatuz.

g. Herri-ekimenak aurretik egindakoarekiko berritasunik ekarriko duen zalantza.

Saltoa, batetik, herri erronka planteatzean datza; Erreferendumaren aldeko herri ekimena ez da Gure Eskuk garatutako bide orri estatiko bat izango, baizik eta askoren artean eraikitako erronka bat, eta horrek, lan egiteko modu berri bat dakar, ezinbestean. Bestalde, Euskal Herri osoko ekimen bat izan nahi du, aldi berean lurralde nortasuna errespetatzen duena, hau da, Euskal Herri osoko herri ekimen integratzailea, baino ez homogenea. Azkenik, instituzioekin elkarlana sustatu nahi duen herri ekimena da, helburua erabakitzeko eskubidea gauzatzeko urrats eraginkorra ematea baita, erreferendumaren tresnak legeztatu eta geureganatuz.

